

**ALKATETZA
DEKRETUA**

2025 000002572

Espediente-zenbakia: 2025/IDA_ERA_0088

**BERMEOKO KULTUR TALDE, ELKARTE ETA PERTSONA FISIKOEI URTEKO
KULTUR ETA JAI EKIMENAK FINANTZATZEKO DIRULAGUNTZEN 2025.
URTEKO DEIALDIAK ZABALTZEA ONARTZEA****Xedea**

Bermeoko kultur talde, elkarte eta pertsona fisikoei urteko kultur eta jai ekimenak finantzatzeko dirulaguntzen 2025. urteko deialdiak zabaltzea onartzea

Aurrekariak

Lehenengoa: 2022ko abenduaren 19an, udal Osoko Bilkurak, 2023-2025 Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartzea erabaki du. Erabaki horren iragarkia 2023ko martxoaren 6ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Bigarrena: 2023ko abuztuaren 2ko Osoko Bilkuran, Bermeoko kultur talde eta pertsona fisikoei urteko kultur eta jai ekimenak finantzatzeko dirulaguntzen oinarri zehatzen balorazio batzordearen eraketaren aldaketa onartu da eta erabaki honen iragarkia 2024ko otsailaren 20ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu da.

Hirugarrena: 2025eko apirilaren 30eko Osoko Bilkurak, Bermeoko kultur talde, elkarte eta pertsona fisikoei urteko kultur eta jai ekimenak finantzatzeko dirulaguntzen oinarrien aldaketa onartu du eta erabaki honen iragarkia 2025eko maiatzaren 9ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu da.

Laugarrena: 2025eko maiatzaren 14an, Kontuhartzaile andreak 118/2025 zenbakidun aldeko fiskalizazio txostena egin du.

Argudioak

Lehenengoa: Gastuek beharrezko kontsignazioak dauzkate (RC 2025/000356, RC 2025/000357 eta RC 2025/000358)

Bigarrena: Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 23. artikulua eta erlazionatutakoak.

**Sinadurea eta data**

Hirugarrena: Dirulaguntzen deialdiak onartzeko eta ebazteko ahalmena Alkatetzarena da baina 2024ko apirilaren 24ko 1886 zenbakidun Alkatetza dekretu bidez Tokiko Gobernu Batzarrean delegatu da. Horrela izan arren, kasu zehatz honetan, premiatusunagatik, eskumen hori abokatzea proposatzen da alkateak zuzenean eramateko.

Erabakia

Goian aitaturiko guztia kontuan hartuta, honako hau erabaki dut:

LEHENENGOA: Bermeoko kultur talde, elkarte eta pertsona fisikoei urteko kultur eta jai ekimenak finantzatzeko dirulaguntzen 2025 urteko deialdiak zabaltzea onartzeko, Tokiko Gobernu Batzarrean egindako delegazioa abokatzea, alkateak zuzenean eramateko.

BIGARRENA: Bermeoko kultur talde, elkarte eta pertsona fisikoei urteko kultur eta jai ekimenak finantzatzeko dirulaguntzen 2025 urteko deialdiak zabaltzea onartzea.

HIRUGARRENA: Deialdi hauen publizitatea Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialera bideratzeko agindua ematea Kultura eta Hezkuntza Sailari.

LAUGARRENA: Deialdi hauen publizitatea Bermeoko Udalaren web gunean txertatzeko agindua ematea Berrikuntza Sailari.

BOSGARRENA: Hurrengo Tokiko Gobernu Batzarrean eta Osoko Bilkuran erabakiaren berri ematea.

Oharra: sinadurea eta data orri-oinan .

**Sinadurea eta data**